

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektorean, salmentak %4,8 hazi ziren 2005eko bigarren hiruhilekoan

Merkataritza espezializatuaren salmentek %3,8ko urte arteko hazkundera izan zuten, eta espezializatu gabekoaren salmentek, berriz, %6,8koa

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektoreak salmenta nominalak %4,8an igo zituen 2005eko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko denboraldi beraren aldean, Eustatek emandako datuen arabera. Hazkunde nominal honek, prezioen igoeraren ondorioa deskontaturik, urte arteko bilakaerako tasa bihurtu da, positiboa hori ere, %3,2koa, termino errealetan.

URTE ARTEKO HAZKUNDE-TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2003	II	2,1	2,2	1,8
	III	2,1	2,1	2,1
	IV	2,8	3,1	2,3
2004	I	1,5	1,2	2,1
	II	4,4	7,0	-0,5
	III	5,4	7,2	2,3
2005	IV	5,2	7,7	0,2
	I	1,8	0,0	-0,7
	II	3,2	3,2	3,2

Iturria: EUSTAT

Betiko txikizkako merkataritzak (espezializatua) salmenta nominalak %3,8 igo ditu 2005eko bigarren hiruhilekoan, 2004ko denboraldi beraren aldean. Igoera nominal hori, bere azpisektore ezberdinen prezioen bilakaeraren ondorioz, %3,2ko urte arteko hazkunde tasa bihurtu da termino errealetan.

Azalera handi eta ertainetako txikizkako merkataritza (espezializatu gabea) %6,8 igo da aurtengo bigarren hiruhilekoan, termino nominaletan. Aitzitik, urte arteko tasa errealearen aldakuntza, 2004ko hiruhileko beraren aldean, %3,2an zenbatetsi da.

Txikizkako merkataritza espezializatuan, urte arteko hazkundeko tasarik handiena pertsonen ekipamenduaren sektoreari dagokio. %9,4ko hazkunde nominala izan du; termino errealetan, %8,5koa. Etxeko ekipamenduko ondasunek, berriz, bilakaera negatiboa izan dute: %-0,5koa euro arruntetan. Bilakaera %-2,2 izango dela

zenbatetsi da, euro finkotan. Elikagaien salmentek hazkunde txikia izan dute, %0,3koa termino nominaletan. Termino errealetan, oster, %3,6ko jaitsiera izan dute. Bestetik, Bestelako Kontsumo Ondasunen partidak (kirolak, jolasak, optikak eta liburu-dendak, besteak beste) %1,2ko hazkunde nominala izan du; produktu horien prezioen deflazio-efektuaren ondorioz, baina, termino errealetan, tasa hori %3,5eko bilakaera positibokoa da.

Lurralde historikoetan, 2005eko bigarren hiruhilekoan, txikizkako sektoreko salmenta nominaletan Bizkaian izan da hazkunderik handiena, %6,5eko urte arteko gehikuntzarekin. Txikizkako merkataritza espezializatuko salmentak %5,8 hazi dira, eta espezializatu gabekoarenak, %7,7.

Arabak lurralde bilakaera txikiena izan du, %1,3koa. Merkataritza espezializatuko salmentetan %0,3ko murrizpena izan du, eta %4,3ko hazkundera espezializatu gabeko sektorean.

Gipuzkoak lurralde bilakaera ertaina izan du txikizkako merkataritzako salmentetan: %3,5. %2,1eko hazkundera izan da txikizkako merkataritza espezializatu gabekoaren salmentetan, eta %6,1koa azalera handi eta ertaineko salmentetan, betiere urte arteko aldakuntza nominaleko terminoetan.

Merkataritza sektorean enpleguaren hazkundera, aurreko urteko bigarren hiruhilekoaren batez bestekoaren aldean, %2,0 izan da. Lurraldeka honelakoa izan da: Bizkaia (%3,4), Gipuzkoa (%0,6) eta Araba (%0,1). Gainera, txikizkako merkataritzako sektore honetako langile okupatuen kopurua, 2005eko bigarren hiruhilekoan, %0,2 igo da 2005eko lehen hiruhilekoaren aldean, Euskal Autonomia Erkidego osoko datuen arabera.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tl.:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Fax:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskaral/indice.asp